

LABen aldarrikapen plataforma Ikertzaileentzat

UPV/EHUko LABek denbora luze darama bere kezka adierazten ikertzaileen lan-baldintza prekarioen inguruan, baita ikertzaileen ibilbideak UPV/EHUUn iraunkortasuna lortzeko dituen zailtasunen gainean ere. Iaztik, doktore aurreko ikertzaileen kontratuetan egindako kode-aldaketak sortutako krisia eztanda egin zuenetik, LABek indar gehiago jarri zuen jardun honetan, eta etengabe egon da eskatzen mahai negoziatzaileira eramatea ikertzaile guztien (doktore zein ez doktore) lan-baldintzak eta etorkizuna gure unibertsitatean. Zoritxarrez, eskari horiei gor egin die administrazioak, doktore aurreko ikertzaileen langile-izaera zalantzan jartzera iritsita.

Estatuko legeriak, behar bezala garatuta ez dagoenak, marko orokor bat ezartzen du, baina **lan baldintzen gaineko zenbait alderdi unibertsitate bakoitzean negoziatu behar dira, besteak beste, soldatarena**. Estatuko zientzia legean eta estatutuan gutxieneko soldatak ezartzen badira ere, **unibertsitate bakoitzak osatu ditzake soldata-kopuru horiek**. LABek ikertzaile irudi guztien lan-baldintzak lan-hitzarmenean egoki txertatzearen aldeko apustua berresten du. Lan-baldintzak, lanpostuak eta batez ere soldatak hobetzeko, **ezinbestekoa da UPV/EHUK jasotzen duen finantziarioa handitzea** eta UPV/EHUko LAB horren aldeko borrokan murgilduta dago.

[Jarraitu irakurtzen ->](#)